

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Martxoak 23, 57. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

JESUS ARZAMENDI:
"EHU, nahiko
estatalizatua"

ARRASATEN
HIRU ERAKUNDE
KONTSUMITZAILEAREN
ALDE

SASKI-NASKI
lehiaketa
LEHEN
SARITUAK!!

HERIOTZ ARRASTOAK

Briones (Errioxa)



MODELO
BERRI-BERRIA
MUGARRI



ARRASATE TELEBISTA

Frogatan bada ere, honez gero hasi gara emititzen. Hilabetez edo, horixe egingo dugu, frogatan emititu, Arrasateko etxe guztietan seinalea ondo hartzen dela jakin arte. Hasieran albiste saioak bakarrik emango ditugu eta, asteak aurrera joan ahala, programazioa osatuz joango gara.

Badakizu non aurkitu

ZURE TELEBISTAREN 23. KANALEAN, UHFen

Oharra: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko anplifikadorea jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzailearekin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetak:
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tziaren erantzunkizunik.



Alemania biak, bat?

Urtero bezala, martxoaren lehen
astean zenbait egun eman behar izan
ditut Mendebaldeko Alemanian.
Merkatal betebeharrak eraginda,
Koloniako Erakustazokara hurbil-
tzen gara euskaldun asko, batzuk
erostera, gehienak saldu... nahian.
Hantxe elkartzen gara urtean behin,
hemen gure herrian biltzeko astirik
aurkitzen ez dugun arrasatear asko.
Eta, sarri, gure forum partikularra
antolatzen dugu, presa haundirik
gabe, solasaldi epelean arituz.

Aurtengo gure elkarrizketen ar-
datz nagusia Alemania bietan bizi
ari den une berezia izan da, dudarik
gabe. Izan ere, mundu guztiak arre-
taz jarraitzen duen gaia baita, alema-
niarrek elkartzeko azaldu duten jar-
rera. Bi estatuak batzeko egiten ari
diren ahaleginak -historikoki- mun-
duko bigarren gerratea amaituz gero
izan den ekintzarik erabakikorrene-
takoa dugu. Prozesua, noski, Ekial-
deko Europan eman den lurrikara
politikoan kokatu behar da.

Iazko martxoan Koloniako egun-
kari batek zioenez, alemaniar bi es-
tatuak batzea ezinezkotzat hartu
behar zen, Varsoviako Itun eta
OTANeko blokeek kontrako asmoa
azaltzen zutelako. Gaur egun, ordea,
egunkari berberak egintzat ematen
zuen prozesua. Hala eta guztiz ere,
arazoak ez dira oraindik ageri.

Asko eta asko idatzi da alemaniar
monoestatuari buruz, etorkizun hur-
bileko Europan Alemania berriak
jokatuko lukeen papera aztertu na-
hian. Ez da ahaztu, ezta gutxiagorik
ere, oraingo egoeraren iturburua. Ez
dute ahantzi nahi, Heinrich Heine
saialariak "teutomania" bezala iden-
tifikatu zuen mugimendu arrisku-
tsua. Horixe eta ez beste ezer da, une
hauetan bi estatuen asmoak azter-
tzean mundu osoko erizle politikoe-
k gehien azpimarratzen duten akatsa.
Batzuek, dagoeneko, alemaniar he-
dapenaren hirugarren fasea ikusten
dute balizko bategiketa horretan,
1866 eta 1936koen ondoren.

Arazo ekonomikoak aparte, ale-
maniar zibilizazioak abertzalekeria-
ren kontrako eredia eman lezake,
publikoki azaldutako nahiera horren
bidez, Europa osora irekiko litzate-
keen hausnarketa sakona sortera-
ziko balute. Horretarako, hau da filosofia
berria gorpuztu ahal izateko, euren
mugen barruan nazionalismoaren
errealitatea bizitzen ari diren beste
estatuen laguntzaz baliatuko behar-
ko lirake. Mende honen hondarre-
tan, estatu-abertzaletasunak gutxie-
nez kultur neurri itzultzeko gai
bagina, Europako askatasunaren
eraikuntzan lehen harria ipintzen
egongo ginateke.

Josemari Velez de Mendizabal



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

Lua

gozokiak

Erdiko kale 8,
Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Arrasate Ikastola dela eta

Arrasate ikastola izenez, betidanik identifikatu dugu, duela 25 urte, herri honetako guraso talde irakasle eta beste pertsona askori esker lehenengo aldiz euskaraz nahasten hasi zen ikastola, San Frantzisko Xabier ikastola hain zuzen ere. Gaur egun dagoen mailan ikusteak asko pozten bagaitu ere, ez dauzkagu ahaztuak egin genituen esfortzu guztiak, dena bait zegoen gure aurka, legea, agintean zeudenak...eta gainera diru falta. Ez dut uste, bada, zalantzarik dagoenik zein den "Arrasate ikastola" eskola honen alde lana egin dugunontzat.

Gaur egun egia da "ikastola" izena, beste ikastetxe batzuk bereganatu dutela "A" eredua (gaztelianaz) mantenduz jarraitu arren kasu askotan, denon harridurarako.

Zera diozuenean "Arrasate herriak zorte handia duela hezkuntza hobea eta euskaldunago baten xedean hiru ikastola ari bait gara lanean" esan beharra daukat oso ausartak zaretela, gutxi ezagutzen bait duzue gaurko Arrasateko eskolen egoera, Eskola Publiko transferituak ere hor daude euskeraren alde lan ikaragarria egiten eta zenbait pribatu ere.

Utzi ditzagun bada txatxarkeriak alde batera eta ahalegindu gaitzen "Euskal Herriko Eskola Publikoa" sortzeko berrendatea agertzen. Orduan denak izango bait dira "Arrasate ikastola".

Guraso bat

Eskerrik asko Aretxabaletako Murruxiko mendizaleei


Gure eskutitz honen helburua mendi aterpean, eta konkretuki Besaidek Lexergaraten duenaren erabilerak aztertzea litzateke.

San Jose eguna jai zela eta, hiru egunetako ibilaldi bati ekin genion. Lehenengoko gaua Urkiolan egin genuen abadeek horretarako prestatuta duten leku batetan. Ederto! Bigarren gaua Gaztagaineko edozein bazterretan pasatzeko asmoa genuen, baina Lexergarateko aterpea askoz urrinago ez zegoenez, Besaideko arduradunengana jo genuen ea libre zegoen jakiteko. Hauen erantzuna libre ez zegoela izan zen, baina gu

ibilaldi bat egiten gindoanez, lekuri egotekotan gaua pasatzeko eskubide osoa genuela adierazi ziguten. Besaidekoak arduratu ziren joateko zirenei jakin erazteko gure joatearena eta printzipioz ez zegoen arazorik. Heldu zen igande ilunkara eta heldu ginen gu ere Lexergaratera, egun guztia oinez igarota gero. Bertan, hiru egunak pasatzera joaniko taldearekin berajek zirela asteburu hartan bertako jabeak. Hala zen. Sartu ginen barrura eta afaldu orduko, bertako arduradunak esan zigun urtetzeko txabola, beraiek bait zituzten eskubide dnak. Lo egiteko, berriz, beraiek 8 izanik gutako hiruri utziko zietela lo egiten bertan, eta besteok kanpoan egin behar izango genukeela, nahiz eta txabolan lekuri izan.

Hori entzunda, laister atera ginen bertatik inoren trabarako ez izateko asmotan eta gure zorionerako ondoko txabolan zeuden Murruxiko taldekoek gonbidatu gintuzten beraien txabolan gaua pasatzera, bertan lo egiteko esanaz, nahiz eta guztira 30 pertsona izan. Beraz, eskerrik beroena Murruxiko taldeko partaideei gutaz "errukitu" zirelako eta galdera hau botatzea: nola hartu behar da Besaidek duen txabola, hoteletzat ala mendi aterpetzat? Ukatu dakiok, lurrean ez bada ere, lo egiteko aukera mendi ekintzak egiten ari den jendeari, aste burua pasatzera joan direnak bakarrik egon nahi dutelako?. Eskerrak horrela batzuk pentsatzen ez dutela eta atxabaltarrak, kasu honetan, atak zabaldu zizkigutela, mendizaleei dagokien bezelaxe.

Besaideko A bazkidea




Zer deritzozu boxeolari?



Jose Antonio Oceja
(langilea)

Nire eritziz, beste kirol bat da. Horretan ari denarentzat luzera kaltegarri izan daiteke. Behar bada, beste kirol bat gehiago bezala hartuko balitz eta ez balira txapelketak egingo... Dena dela, adina mugatu beharko litzateke. 30 urte arte edo utzi beharko litzateke jokatzeko.



Isabel Roman
(etxeakoandrea)

Niri ez zait gustatzen. Oso gogorra dela uste dut.



Modesta Ortiz
(etxeakoandrea)

Ez zait gustatzen, oso gogorra dela uste dut. Bi pertsona elkar joka ikustea ez dut atsegin.




Jose Luis Amutxastegi
(langabetua)

Kirola ezik, edozer gauza dela uste dut. Entrenamenduak eta, ondo ikusten ditut, baina txapelketak ez. Astakeria dela uste dut.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

KOPIOTXOA

Estakopik

Planu-Erreproduzioak
Enhuadernazioak

Zarugabe 29. Tfnoa: 79 17 89
ARRASATE

**O
Y
A
L**

**Zure umea modan
nahi baduzu jantzi,
ikus ezazu OYAL**

Erdiko kalea 48. Tfnoa: 79 18 11. ARRASATE




BELUN
taberna

Lagunarte bitaina

Gangarategi 2/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

23 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Eternamente amigas". 7 eta 9,30etan.
- Antzerkia: "Ama begira zazu" antzeziana ikusteko aukera. Novedades antzokian, arratsaldeko 8etan eta gaueko 10etan.
- Ekologi zine zikloa: "Kamikaze" filma ikusteko aukera. Eskoriatzako zineman.9.30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

24 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Eternamente amigas". 5, 7 eta 10,30etan.
- Novedades: "Cazafantasmas II". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Umeentzako antzerkia. Merkeleñe Mimo taldearen eskutik "Mutu lilurgarria" antzeziana ikusteko aukera. Amaia antzokian, arratsaldeko 6etan.
- Jaialdia: "Barrkada" taldearen kontzertua. Txibisto dantzalekuan, gaueko 10,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

25 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Sexo, mentiras y cintas de video". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Cazafantasmas II". 5, 7,30 eta 10,15etan.
- Ekologi zine zikloa: "Delicias turcas" pelikula ikusteko aukera, Eskoriatzako zinean.9.30etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

26 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Sexo, mentiras y cintas de video". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Cazafantasmas II". 7,30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

27 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Sexo, mentiras y cintas de video". 7 eta 9,30etan.
- Hitzaldia: "Ongitasun pertsonala eta komunitatea, kontsumo kulturaren barnean" gaiaren inguruan, Idola Romo psikologoaren eskutik.
- Goardiako farmazia: Español. Iturriotz.

28 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanairik.
- Ekologi zine zikloa: "El gran azul" pelikula ikusteko aukera, Eskoriatzan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

29 OSTEGUNA


- Zinea: Alai: "Aquí huele a muerto". 7 eta 9,30etan.
- Ekologi zine zikloa: "Sugarbaby" pelikula ikusteko aukera. Eskoriatzako zinean.9.30etan.
- Hitzaldia: "Nutrizioa" gaiaren inguruan, arratsaldeko hiruretan, "Casa de Galiza"-Urkizu IIn arratsaldeko 3etan. Takian Potian kanpainaren barne. Eibar
- Zine-klub: "Consejo de familia" pelikula ikusteko aukera. Amaia antzokian, arratsaldeko zortzi terdietan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

IKASTAROAK

- Zanko ikastaroa. Aizpurutxu taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoentzat. Egunean bi ordu. Martxoaren 31tik apirilaren 7ra. Izen emateak Arrasateko Gazte Zerbitzuan.
- Negu Tekniken ikastaroa. Martxoaren 25, 26, 31 eta apirilaren 1ean. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta. Plaza mugatuak.
- Open Access II. Arrasateko IMIn. Martxoaren 26tik 30era bitartean. Informazioa Arrasateko IMIn.

ERAKUSKETAK

- Haratuzteetako argazki rallyaren argazkien erakusketa. Egun hauetan zehar Monterron kultur etxean,



GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

CADUCA FINAL ►

GK TXARTELA

Aldean eraman aldiro

Gipuzkoako Kutxaren
GK Txartela eraman behar
da aldean, eguneraturik
egoteko.

Gipuzkoako Kutxaren
Kutxazain Automatikoetan
erabateko erosotasunez
iharduteko.

Edozein dendatan aldean

eskudirurik eraman gabe
ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez
baliatzeko.

Era automatizatuan eta
ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe
bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

“ Zorionak eman nahi dizkiot Arrasateri, besteak beste, euskararen munduan ere aintzindari bihurtzen ari zaretelako, eta horren frogarik ikusgarriena hementxe bertan daukagu, telebista kamara hori aurrean dugula”.

(Xabier Mendiguren Elizegi idazleak, Monterron Kultur etxean)

“ — Inoiz bota dizuete tomaterik muturrera?
— Tomaterik ez, baina behin Oñatin almohadilak bota zizkiguten. Txirri, Mirri eta Txiribitonen aktuzio bat zen. Azkenean norbaiti okurritu zitzaion, ez aktuzioa gaizki joan zelako, baizik eta brometan bezala, almohadila tiratzea, eta ume guztiek imitatu zuten, eta iritsi zen momentu bat benetan arriskutsua zena. Gogorrak ziren almohadilak eta piloa, eta erretiratu beharra izan genuen”.

(Peter, “Funtzioa” programaren arduradunak DVko Zabalik-en)

“ — Besteak ez dauka erori beharrik. Niretzat bo-xeo beste edozein kirol bezalakoa da. Kontua da jokatzea eta eskibatzea, kontua da konbatea ahal den ostiako gutxienekin bukatzea. Ez da Uzkudunek esaten zuena. Zuk kontrarioa azkar botatzen baduzu ez da ezer ikusten. Neretzat kirol ederra da. Esaten dute burua kulunka gelditzen zaizula, buruan asko jotzen bazaituzte hala gerta liteke, baina jende asko dago munduan burutik joanda eta ez dira boxeadoreak.

(...) Ez. Gaizki nabilela ikusten dudanean utzi egingo diot eta kitto. Zeure burua zaintzen baduzu ez daukazu burua kolokan zertan bukatu. Zaintzen ez bazara bukatzen duzu horrela, hartara konbatera joan eta ostiako pilo bat hartzen bait duzu”.

(Galan boxealari arrasatearrak DVko Zabalik-en)


Nola ikusten duzu Arrasate Musikalen etorkizuna?

1990. urtea, Arrasate Musikalen etorkizunerako erabakiorra da. Arrasate Musikal sortu zenetik orain dela hiru urte arte, bertako irakasleak inolako kontratu gabe aritu izan ziren lanean. Horrela ezin segi zitekeela ikusi genuen eta kontratua egin genien. Aurtengo kurtsoa amaitzean, irakasle horiekin zer egin erabaki behar da, plantilan sartu edota kalean utziko ditugun. Gure ustez, Arrasate Musikal sortu zenetik gurekin aritu diren irakasleak ezin dira kalean utzi. Bestalde, oso soldata baxua kobratzen dute eta beste kontserbategietako irakasleek kobratzen duten adina behintzat, kobratu beharko luketela uste dugu.

Lokalen arazoa ere hor dugu. Lokalak egoera kas-karrean daude eta pare bat urtez hor egon bagaitezke ere, lokal egokiagoen beharrean gaude.

Arrasate Musikal Gipuzkoan sortu zen mota honetako lehen akademia dugu, eta beste herrietan kontserbategiak egiten joan diren bitartean, gu atzerantz goazela ikusten dugu. Aurtengo kultura eta hezkuntza batzordeetako zinegotziekin harremanetan izan gara, Arrasate Musikalen etorkizuna behin betiko argitzeko. Datorren hilabeterako Udalak honen inguruan erabakia hartuko du. Arrasate Musikal kontserbategi bihurtuko duen, laguntza ekonomiko handia emango dion ala orain arte bezala utziko gaituen jakingo dugu. Orain arte bezala ezin segitu —kuotak gehiago ezin direlako igo— eta kontserbategi bihurtuz gero, Arrasate horrenbeste urtetan nahi izan duena lortuko du.

Juan Luis Castillo
Arrasate Musikaleko lehendakaria.



SOKOA

Zeharkale estalia Arrasate

Zunbeltz

Simon Arrieta Eparantza 2,
BERGARA



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: Otalora 1ean
Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

BOLINTXO

kirolak

Ibargarai 10, BERGARA


Euskararen Hitzarmena

Hogeitamahiru elkartek asteazkenean sinatuko

Datorren asteazkenean, martxoak 27, goizeko hamaiketan sinatuko da Euskararen Erabilera Sustatzeko Hitzarmena Monterronen.

Arrasateko Udalaz gain, beste 32 Elkartek ere beren onespena eman dute; eta zerrenda luzea oraindik ere itxi gabe dago, beste hainbatekin harremanetan bait daude.

Euskaren munduko makina bat pertsona ezagun hurbilduko da bertara; hala nola: Mari Carmen Garmendia (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaria), Jean Haritschelhar (Euskaltzainburua), inguruko herrietako Kultur eta Euskara Batzordeburuak, Alkateak, etab.



Gogoratu Elkarte horiek euren arteko harremanak euskaraz izateko konpromezua hartuko dutela.

Larunbatean mimoa

Datorren larunbatean, martxoak 24, haurrentzako emanaldia ikusi ahal izango dugu Amaia antzokian.

Arratsaldeko 6etatik aurrera, Markelife mimo taldearen eskutik *Mutu Liluragarria* lanaren antzespena eskainiko da.

Ekintza hau martxoko kultur programazioaren barruan kokatzen da; sarrera, 200 pta.



Haratuzteetako argazki rallya

Ostiralean eman ziren Monterronen, SUDC Elkarteak 90eko Haratuzte egitarauaren barruan antolatutako argazki rallyaren sariak.

Hamaika lagunek hartu zuten parte bertan.

Azkenean, argazki-talde onenaren saria Roberto Mendirentzat izan zen, 15.000 pta.rekin Sail honetan, bigarrena Jose Luis Feo.

Gai librean, ostera, Xabier Ozaetak eskuratu zuen lehenengo saria eta 10.000 pta. Bigarren, Karmelo Uribarren izan genuen.

Sardiñaren argazki onenaren saria, ostera, Eduardo Fernandezentzat.

Kanpotik ondo egoteko eta barrutik ondo sentitzeko...

Bernard H. Stauffer irakasleak asmatu zituen benetazko soinketa pasibo mahaia.

Astean bi ordu nahikoa dira emaitza azkarrak lortzeko.

GIZON-EMAKUME

- Odol zirkulazioaren areagotzea.
- Linearen zuzenketa.
- Artikulazioen malgutasuna.
- Mantenimenduaren hobekuntza.
- Giharren indarketa.
- Pisu galketa.

Lehenengo sesioa eta ordenadore bidezko irudiaren azterketa doan!!

Etengabeko Orduetgia
Anima zaitetz! Itxaroten zaitugu:

Stylo Stauffer "Munar"
Munar 8 Tfnoa: 77 02 49 ARRASATE

Stauffer
CONCEPT

■ Okerrak zuzenduz

Bakoitzari berea eman behar zaiola eta, guk bi oker konpondu beharra daukagu.

Alde batetik, esan behar azaroan egindako Stiff Little Fingers taldearen emanaldian 2.300 sarrera jarri zirela salgai, eta ez 4.000 guk kaleratu genuen bezala. Ez genituen iturri egokiak erabili, eta hortik nahaste-borrasteak.

Era berean, konpondu behar ere aurreko astean emandako datu bat. Elbarrituentzako jarri nahi den furgonetaren egokitzeak 700.000 pta.ko kostua izango luke, eta ez 7 milioikoa. Kasu honetan, idazmakinak ekarri zigun ezustea.

■ Suhiltzaileak borrokan

Diputazioaren ardurapean dauden suhiltzaileak, Zubillaga eta Irungo parkeetakoak hain zuzen ere, borrokan dihardute oraindik gaur. 89ko azaroan hasi ziren Diputazioarekin harremanetan, eta bi eskari luzatu: langile kopurua gehitzea, eta lanorduen erregulazio zehatza.

Itxura denez, Diputazioak ez die oraindik jaramonik egin. Hori dela eta, suhiltzaileek berriz ekin diete mobilizazioei. Atzo, adibidez, Sebero Altuben izan genituen, kasko eta guzti.

■ Kontu handiagoa urarekin

Gure inguruetan oraindik alarma gorria piztu ez bada ere (Urkulun 10 hilabeterako ura gelditzen omen da), Arrasateko Udalak dei egiten die herritarrei ura kontu handiagooz erabil dezaten; beharrezko ez den gasturik ez egitea behintzat.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)

Gotzon Aurrekoetxea (*)

Ahozko hizkuntzak bere status dialektalean, berak aurkezten dituen aldaerak aztertzeko tresna da hizkuntz atlasa.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)k Euskal Herrian euskara mintzaten den tokietako ahozko datuak bildu eta argitaratzea dauka helburu.

Behar dituen datuak herri guztietan galdetu ordez, inkesta-leku sare bat eraikitzen du. Kasu honetan 145 herri-tan egiten ari dira inkestak. Gure inguruan Arrasaten, Gatzagan, Aramaion, Bergaran, Oñatin (bi, bata Oñatin bertan eta Araotzen bestea) eta Udalaren bestaldetik Arrazolan.

EHHA

Proiektu hau burutzeko Euskaltzaindiak lan-talde bat gertatu zuen duela 5 urte. J. Haritschelharren ardurapean den talde hau G. Aurrekoetxea eta X. Videgain zuzendari teknikoek gidatzen dute. Bi pertsona huez at, beste bost pertsona ari dira inkestak egiten: I. Atutxa, A.M. Echaide, JM Etxebarria, I. Etxebeste eta K. Seguro-la.

Hizkuntz atlasetan galdeketak oso luzeak izaten dira normalean. Kasu honetan 2.785 galdera egiten dira herriko. Guzti horiek galdetzeko 25-30 ordu inguru behar izaten dute herri bakoitzean. galderok hizkuntzaren alderdi ezberdinak jorratzen dituzte: lexikoa, morfologia, sintaxia eta fonetika. Ohituraz galdera gehienak lexikoaz egin izan ohi dira, baina EHHAK orain arteko atlasetan toki gutxiago izan duten morfologia eta sintaxia ere kontutan izan ditu.

Egiten dituzten inkestak denak oso-oso-oso grabatu egiten dira magnetofonoz. Inkestak bukatzen direnean 4.000

ordutik gora izango dituzte grabatuta. Zinten bidez jasotzen den informazioa kuaderno batzuetara transkribatzen da alfabeto fonetiko elaboratu bat erabiliz.

Arduradunen esanetan, inkestak aurrera, uda parterako bukatuko dituzte.

Erantzun-kuadernoetarik ordenagailua sartuko dituzte emaitza guztiak datuen elaborazioa eta karotgrafia lanak ere automatizatuaz baliatuz egiteko.

Emaitzak mapen bidez argitaratzen dira. Inkesta-uncan egin den galdera bakoitzak toki ezberdinetan izan dituen erantzunak mapa baten jartzen dira.

Metodologiaren aldetik aberatsa den EHHA proiektuaren emaitzak (atlasgintzan sortuz joan diren aldakuntza metodologiko guztiak bildu baitituzte) bost tomotan argitaratuko dira.

Kostu ekonomikoa

Proiektu hau abiadan jartzeko Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzaren aurrean aurkeztu zuen.

Ikerketa-proiektu honek Hegoaldeko Agintaritzaren Publikoaren laguntza ekonomikoa jasotzen du. Frantziako CNRS (Conseil National de Recherches Scientifiques) erakunde ere arduratzen da.

Iraupena

Hizkuntz Atlas bat egitea ez da gauerdiko ahuntzaren ezutula. Denbora luzea behar izaten dute bururatzen. Kanpoko atlasetan 20, 30 eta 40 urte ere behar izan dute amaitzeko.

Duela bost urte hasi den proiektu honek 1.990era arte iraungo du bere ibilbidean.

(*) Hizkuntzalaria



GATZAGA
Jatetxea


Arrasateko
jatetxea

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

URRIN

Uribarri Etorbidea 22,

KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK



Gureak tailer babestuak ekainerako

115 milioiko gastuaz, hasieran 40-50 lagunentzat lana

Gurea enpresak elbarritu psikikoekin dihardu lanean 1975etik; lehenengo tailerrak Bergara eta Donostian jarri zituzten, baina dagoeneko beste 12 ireki dituzte. Horrela, gaur egun 847 neska-mutiko ari dira bertan lanean.

Dena den, Deba Garaiko beharrei erantzuteko oraindik ere Bergarako tailerra dago bakarrik (egoera makalean dagoena). Ondorioz, arazoari irteera eman behar zitzaioela ikusi zuten, eta Udalen bitartez tailer berria eraikitzearen posibilitatea aztertu.

Hasierako asmoa eraikuntza Bergaran bertan egitea zen; baina arazo ezberdinak medio, azkenean Arrasatera ekarri zuten. Horrela, Alejandro Altuna enpresaren alboko lokala erosi zuten.

Bergaran 35 lagunek dihardute lanean; baina horietako 20 Arrasatera etorriko lirateke, langabezia

dauden beste 18 elbarritu psikikoekin batera (guztiak ere 21 urtetik gorakoak). Aurreikuspena, urtero 6-7 eskari berri onartzea da.

Gureak tailarretan, batez ere birkontratazioko lanak egingo lirateke inguruko enpresekin: koadro elektrikoak, estanzazio lanak, eskulana (torlojuak poltsatan sartu, plastifikatuak egin...), etab.

Egokitze-lanak nahiko aurreratu daude, eta tailerra maiatzean, edo ekainean has daiteke martxan.

Prozesuak 115 milioiko gastua eskatu du; eta azken urratsak eman gabe badaude ere (Deba Garaiko Udal bakoitzak osoko bilkuran onepena ematea), seguraski honela gera daitezke kontuak: 25 milioi Diputazioak, 25 Mankomunitateak, 25 Gupostek (elbarritu sentsozialekin lanean diharduen Gurea enpresaren filiala), eta gainontzeko dirua INEMetik atera beharko litzateke.

Usteak uste...

Udaberriaren atarian, auto istripu lelo batek erruz moztu ditu hiru anaia arrasatear gaztearen bizitzak, hainbat familia apurtuz eta herrian sekulako zirrara eraginez. Azken berriek diotenez, laugarrena onik irtengo da, zorionez.

Hiletak, aurreko eta ondorengo ekintzekin batera, urragarriak izan baziren ere, Peugeot 205aren txatarra birrinduak eta istripua eman zen tokian berebilaren zenbait pieza eta arrasto -Arrasateko Rugby Taldearen pegatina atzeko kristal apurtuan kasu-ikustea bihotza erdibitzeko modukoak izan ziren. Heriotzaren hatzaparrak kupidagabeak izan ziren kasu honetan eta, sarritan baino areago, inongo zentzu barik suntsitu zituzten hiru gorputz gazte eta biziz bateak.

Gida txartela atera nuenetik berebilean egin ditudan hankasartze, huts eta erokeriak kolpatu zaizkit burura eta hotzikarak sentitu ditut. Zorte hobea izan dudalako, bizirik eta onik nago oraindik. Txarrena, beste batzuk ez dutela beste aukerarik izango. Logroñotik bueltan, inoiz baino kontu handiagoz begiratu dut aldemenetara bidegurutzetan. Kamioiek bildurra eman didate. Aguroegi bizi ez ote naizen/garen susmoa dut. Guk ere edozein izkinatan utz dezakegu larrua.

Pedro, Juan Jose eta Bittor izan ezazue bakea eta zuen familiek gure doluminik sentikorrrena.

Joxe Aranzabal



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**


Olarte kalea 47, beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31

BESAIDEALDEA EGOKITZEA



Eragilea: EUSKAL HERRIKO MENDIZALEEN ELKARGOA
Proiektatua: DEBA GARAI UDAL ELKARTEKO BULEGO TEKNIKOA

Besaideren itxura-aldaketa

Pinuak bota eta eskultura berria Iturri alboan

Besaideko tontorrean, zutik dirau 55ean eraikitako monumentuak; baina azken urteetan, ingurua pinuz josi, eta dagoeneko ez da deus ikusten. Bista ederrak pikutara joan dira.

Hori ikusita, joan zen urteko irailan proiektu bat jarri zuten martxan: tontorraren inguruko 13 hektarea erostea, garbitu (lehenik pinuak bota), txukundu, eta apaintzeko ere (asmo horrekin, iturri ondoan Joshin Ogata eskultore japoniarraren 10 m x 8 m.ko lana kokatuko da, mendizaleak tontorrera gidatzeko).

Ideiarene bultzatzaileak Arrasateko Besaide, Aramaixoko Orixol, eta

Elorrixoko Erdella Mendizale Elkar-teak izan ditugu. Euskal Herriko Mendizaleen Elkargoak gorpuztu du proiektua, eta Alvaro Arregi animatzaile sutsuenetarikoa izan da.

Aurrekontua, 30 milioikoa. Itxura denez, entitate hauen artean banatuko litzateke gastua: Eusko Jaurlaritza (%40an); 3 Diputazioak (%50ean); Arrasate, Aramaixo, Elorrixo eta Atxondoko Udalak (4ren artean %8a); eta bukatzeko, aipaturiko Mendizale Elkar-teak (%2an).

Egitasmoa irailerako buru daiteke, 13 hektarea horien jabeekin tratua itxi eta gero.

Edurne Iturbe eta Felix Lopez baldintzapeko espetxean

1985eko martxoaren 10ean Madrilen atxilotuak izan ondoren, Felix eta Edurne senar-emazte arrasatearrek 7 urte, 2 hilabete eta bi egunetako espetxe zigorra jaso zuten (Madril komandoaren laguntzaileak izatearen salaketapean).

Bost urte pasatu ondoren, espetxean erredimitu dituzten 8 hilabeteak barne, dagoeneko zigorraren 3/4ak bete dituzte (urtarrilaren 8an, hain zuzen ere). Berez kalera iteteka tokatzen zitzaien, legeak hori bait dio; baina oraingoz ez dituzte atera.

Gaur egun bizi duten egoerari baldintzapeko espetxea deritzo, eta edozein momentutan irten daitezkeela esan nahi du. Bestela, 1991eko ekaina eta azarorarte itxaron behar-ko lukete, zigor osoa bete arte.

Jaiotzak

Usobiaga Eguzkiza, **Mikel**. Martxoaren 12an
Suarez Gomez, **Leire**. 14an
Romero Infante, **Beatriz**. 17an

Hildakoak

Regaño Bato, **Aitor**. 18an
Dolores Resusta Olañeta 93 urte. Martxoaren 15ean.
Ines Franco Rodriguez 83 urte. Martxoaren 17an.
Bittor Errasti Uribarren 32 urte. Martxoaren 17an.
Juan Jose Errasti Uribarren 36 urte. Martxoaren 17an.
Pedro Errasti Uribarren 35 urte. Martxoaren 17an.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



ETXE-AUNDI

Gastapen-menua
martxoaren 30erako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
- Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
- Txahal-solomoa espinaka gainean Rossini saltsaz
- Errekako amorraina ziape-sabaionez eta piper muturtxodunen saltsa
- Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.

2.900 pztla BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak

 **Aranzabal Akobe**
elektrogailuak

DISCMAN
SONY D-20



 **MELIA BIDAIAK**

Etxe Aundi jatetxea

AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT

 **OKENDO**
KIROLAK

ZAPATILAK



Ikatz
argazki etxea

ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA



ASTE HONTAKO
SARITUAK

ALAITZ ETXEBARRIA
discman Sony D-20

BEATRIZ MURGIA
2 lagunentzat afaria

OLAIA VITORIA
kirol zapatilak

LEIRE GARAI
argazki makina

Hileko sari handia

 **OKENDO**
KIROLAK

80.000 pta. ko kirol jantziak,
Okendo Kirolak-ek emanak

Galdera:

ZER IZEN DU ATBren ASTEROKO KIROL SAIOAK?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: **Herria:** **Tlfnoa:**



LKak 89ko txostena aurkeztu

Mc Kinsey LKAREN 90 hamarkadarako estrategia landu

Juan Mari Otaegi Lan Kide Aurrezkiko lehendakariak, eta Jabier Irastortza zuzendari nagusiak, pasa zen astean emandako prentsaurrekoan 1989 urteko txostena aurkeztu zuten.

89a urte faboragarritzat jo zuten, kooperatiba taldeak mugitutako 251.753 milioi pta. medio.

Estatu mailan, 78tik 10 dira irabazitan Lan Kide Aurrezkiaren gainerik dauden Aurrezki kutxak. Bankuekin konparatuz, ostera, 71tik 17 dira Lan Kide Aurrezkiak gainditzen dutenak.

Iaz 61 kutxazain automatiko jarri

zitu zuten; eta gaur egun, dagoeneko 90. hamarkadarako estrategia disainatzen dihardute, Mc Kinsey konpainiaren laguntzarekin.

Kooperatibei dagokionean ere, 89an taldearen salmentak %22,8an hazi dira; 22.030 enplegatu ditu taldeak, iaz baino 1.500 gehiago.

Bide batez, gogoratu kooperatiben munduan Batzar garaia dugula. Hezibidek ere urteroko Batzar Orokorra egin zuen pasa zen astean; hainbat aldaketa eman ziren estatutuetan, eta batez ere irakaskuntzaren munduan dauden inbertsio urriak salatu.

S. Viatorreko Batzarra

Astearte arratsaldean egin zuten San Viator ikastetxean ohizko Batzar Orokorra. 817 bazkidezik, 170 azaldu ziren bertara.

Lehenengo eta behin, aurreko agiriaren onarpenaren txostena irakurri zuten, eta ondoren, 88-89 ikasturteko txostena onartu.

89-90ko gestio planari buruz ari ziren gero; gai nagusiak Euskal Eskola berriaren definizioa, Epe Laburterako planaren aplikazioaren azterketa, eta Irakaslegoaren prestakuntza izan genituen.

Datorren ikasturterako erronka nagusiak hauek dira: ikasleen beharren eta gizartearen eskarien arteko oreka lortu, ikasleen nortasuna eta baloreak sendotu, Hezibideko taldeen arteko koordinazioa lortu, estamentu guztien partizipazioa eskuratu, Epe Laburterako plana indartu, etab.



Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

VE ECUADOR


Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN


auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Bittor Errasti



Pedro Errasti



Juan Jose Errasti

Errasti anaiak istripuz hil

Zorione Etxeberria larriki zaurituta hasieran, hobera doa

Larunbata, uste baino beltzago bihurtu zitzaigun Arrasaten. Eguerdian aldean, albiste gogorra jaso genuen: Bittor, Juan Jose eta Pedro Errasti anaiak kotxe istripuz hil ziren Brienes-en (Errioxan).

32, 36 eta 35 urteko anaiak hauek Najerarantz zihoazen, Bittorrek gidatutako kotxean; Najeran, lehengusu baten eztaiak ospatu behar zituzten. Baina eguerdiko hamabiak inguruan, kamioi baten kontra jo zuten.

Bittor Errasti une berean hil zen; Juan Jose eta Pedro, berriz, minutu batzuk beranduago. Istripu berean, Bittorren emaztea, Zorione Etxeberria,

larriki zauritua gelditu zen, eta San Millaneko zentrura eramane zuten, ostegunean Gasteizera ekarri zuten arte.

Hiru gazteak oso ezagunak ziren Arrasaten; Bittor udaltzaina zen; Pedrok Mendiolako merenderoan egiten zuen lan; eta Juan Josek Obea enpresan (alargun utzi du Ana Otadui, eta baita bi seme ere).

Herriak benetan sentitu ditu heriotz hauek; igandean, goiko puntaraino bete zuen jendeak bai parrokia, eta baita inguruko kaleak ere: une mingarrietan, hiru anaien fa-



miliari laguntasun eta berotasuna eman nahian.

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

UDALA
Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak


Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

URREZKO BITXIAK
ERLOJUTEGIA
Erdiko Kale 23, Tfnoa: 79 20 47
ARRASATE

NAROKI



—▲—
Martxoaren 17an hasi zen Musakolako saloian *Sevillana* ikastaroa. Lau asteburutan zehar luzatuko da, guztira 16 ordu beteko direlarik. Klaseak larunbat eta igandeetan izango dira, 10,30etatik 12,30etara. Ole!



—▲—
Lau egun eman zituen Fernando Alcantara, Bartzelonako "Instalaciones Deportivas XXI" aldizkariko zuzendariak Arrasateko kirol instalazioak bisitatzeko, AUKEAko arduradunen eskutik. Zeharo harrিতa gelditu zen gure herriak duen kirol-azpiegiturarekin, eta ederto aprobetxatu zuen aukera *Arrasate Press*-eko harpidedun egiteko ere



◀ Arrasate eta inguruetan, Iñigo Irasuegi insumisoa atxilotu zutenetik protesta-ekintza ugari egin dira; ikasleen grebak, manifestaldiak, trafiko mozketak, etab. eraman dituzte aurrera.

Guztia, geroz eta argiago dagoen kontuagatik: Euskal Herriko gazteek uko eginen diotela soldaduzkari.

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

izen propioak


◀ Pasa zen ostegunean, Gazteluondoko San Frantzisko Xabier Ikastolan, **Guillermo Ojembarrena Lopezek**, Prebentzioaren didaktika izenburupean hitzaldi eta bideo-emanaldiak eskaini zituen.

Arrakasta handiz eskaini gainera, aretoa bete egin bait zen.

◻ **Daniel Laskurain**, 24, bergararra, hil honetan zehar bere arte lanen erakusketa egiten ari da Etxe Aundin. Danielek, Bilboko Arte Ederren fakultatean ikasten dihardu. Artelekun pintura kurtoa egin zuen iaz eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka ere jaso zuen grabatugintza ikasketako. Euskadiko Arte Plastikoen sarietan zenbait sari irabazi ditu grabatugintza eta marrazkigintza alorretan.

◻ **Roberto Mendi**, 30, arrasatearra, Haratuzteetan burutu zuen argazki rallyan argazki talde onenen saria irabazi du. Robertok Maestria ikasketak burutu zituen eta Ulman lanean dihardu azken bi urteetan. AEDren argazki lehiaketan eta Santamas argazki lehiaketetan saritua izan da.

◻ **Xabier Aranburu Zezaga**, 18, bergararra, iazko Urruzuno literatur lehiaketan poesia saria irabazi zuen, A mailan. Lehiaketa honetan saritutako lanen bilduma orain kaleratu da. Xabierrek Bergarako Institutoan ikasten ari du ondoren, aurtan ETEOn dihardu ikasten.



Josemari Velez de Mendizabalek ostiral arratsaldean aurkeztu zuen Monterronen kaleratu berria duen *Sixties* liburua. Han bildu zirenei, lanaren inguruko nahi beste argitasun eman zizkien. Gauza bakarra falta zaio orain, saltzeko orduan ere arrakasta dexentea lortzea ▶



◀ Pasa zen ostegunean, **Kontsumitzailearen eguna** izan genuen. Hori zela eta, Aualdeko kontsumitzaileen Elkarteko ordezkariak, Seberon postua jarri eta hor ibili ziren mundu guztiari informazio orriak ematen.



prest




ZENTRO PSIKO-MEDIKOA



GIDA TXARTEL ETA
ARMA BAIMENETARAKO MIAKETAK

J. Carlos Gerra 1, 3. Tfnoa: 77 08 96 ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Alfonso X. Jakintsua 5,
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Kontsumitzen ikasi behar

Arrasaten hiru erakunde kontsumitzailearen alde

Joan den astean Kontsumitzaileen Nazioarteko Eguna burutu zen. Hau dela eta, Deba Garaiko Kontsumitzaileen Elkarteak txosna bat jarri zuen, gai honen inguruan informatzeko. Edonola ere, Aualde ez dugu Arrasaten kontsumitzaileen elkarte bakarra. Kontsumitzaileen Udal Bulegoa ere ahalegintzen da kontsumitzaileok nolabait babesten eta Eroskiren Kontsumitzaileen Elkarte ere hor dugu.



Antton Fernandez Omic-Kiubeko arduraduna

Zer egin kontsumitzaile on izateko

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan, kontsumitzaile on izateko zenbait aholku eman dizkigute. Garbi izan erosi behar dena eta inoiz ez erosi behar dena baino gehiago. Hau da, behar ez dugun produkturik ez erosi, merkealdi edota iragarrien xarman erori gabe. Antton Fernandezek azaldu digunez, gero eta gehiago erosten dugu, baina gero eta beharrezko gauza gutxiago.

Bestalde erosteta zerrenda eramatea ere gomendagarria omen da, batez ere erostetxe handietara joatean. Etxean zer behar dugun pentsatu eta apuntatzea gomendagarria da. Zerrenda horretan agertzen ez den ezer ez omen da erosi behar, nahiz eta eskaintza oso erakargarria izan begi bistan.

Aurrekontu eta fakturak eskatu eta gordetzea ere gomendatzen digu Antton Fernandezek eta, azkenik, gastu handiren bat egitea pentsatzean, oporrrak antolatzean esaterako, aurrekontu

bat baino gehiago eskatzea eta prestazioak eta salneurria alderatzea aholkatzen digu.

Gure eskubideak zeintzuk diren eta beraiek errespetatu araztea ere funtsezkoa da.

KIUB-OMICen bitarteko lanak gehien bat

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan, kontsumo gaiez informazioa jasotzeko aukera izango dugu. Edonola ere, kontsumo ihardueraren

ere, kontsumitzaileak ohitu egin behar du, zerbait suertatuz gero erreklamazioa norberak egitera. Askotan huseria izan dela eta, ahaztu egingo dugu gertatutakoa, baina denok gauza bera eginez gero, kontsumitzaileok gure eskubideen bortxaketak sarritan ikusiko omen ditugu eta arazoa konpondu beharrean areagotu egin daiteke.

Kiuben bitarteko lanarekin ere, gure arazoa konpondu ezcan, bide administratibotik salaketa egiteko aukera izango dugu, baina besterik ez. Normalean *Kiuben* aurkeztutako salaketak konpondu egiten dira, baina, zenbaitetan, jendeak ordainagiriak ez gordetzeko duen ohitura dela eta, ezin omen daitezke konpondu.

Acualden ere antzeko zerbitzua

Acualde, orain dela lau urte sortu zen, lau arrasatearren ekimenez. Pertsona hauek, kontsumitzailea desbaturik aurkitzen zela ikusi zuten eta *Kiubek* baino ahalmen gehiago duen beste erakunde bat sortzea pentsatu zuten, *Acualde* sortuz. Etxe partikular batean lanean hasi eta elkartearen gaitzen joan zen, gaur egun 40 bazkide direlarik. *Acualdek* bulegoa Erguin auzoan du eta bulego orduetan hara hurbilduz gero, Karmele edo Rosa ikusiko ditugu. *Acualde*, Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkartearen partaidea da eta bertan informazioa jaso eta gure salaketak egiteko aukera izango dugu.

Karmelek azaldu digunez, *Acualdek* informazioa emateaz gain, bitarteko lanak ere egiten ditu, kontsumitzaile

Zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta gehiago nahi dugu; ez gara inoiz asetzen

batean arazoren bat izanez gero, *Kiuben* erreklamazio hori jaso eta konpontzen ahaleginduko dira. Antton Fernandezek azaldu digunez, normalean bitartekari lanak egin eta arazoa konpondu egiten omen da. Edonola

le eta saltzailearen artean. Honez gain, gauzak horrela konpondu ezik, salaketa euren bideratzen dute eta abokatua ere ordainduta izango du hara hurbiltzen denak, bazkide kuota ordaindu ondoren.

Eroskik gehien bat informatu

Eroskiren kontsumitzaileen elkar-teak Arrasaten 10 urte darama lenean. Dendan lortzen diren irabazien %10a kontsumitzaileen elkartari eskaintzen zaio. Arantxa Lizasok azaldu digunez, gehien bat heziketa lanetan aritzen dira, elikadura, osasun eta ekologia gaien inguruan, hurbilen sentitzen dituzten gaien inguruan hain zuzen. Arantxaren ustetan, gaur egun, kontsumitzaileak ez du inolako babesik eta heziz gero, bere burua defendatzen jakingo du. Eurak hurbiltzen zaien edozein erakunderi laguntza ematen diote eta, orain esaterako, Elikadura eta Kontsumo ikastaroa ematen dihardute Gizarte eta Famili Heziketarako Zentruarekin elkarlanean.



Rosa eta Kamelc Aqualdeko bulego arduradunak

Eskubideak ezagutu zituzten eta...

Milak eta Josemarik, 1983. urtean pisua alokatu zuten. Gustatu zitzaienten etxea aurkitu eta jabearekin ados jarri ondoren, bi urterako kontratua sinatu zuten. Bi urteak pasa ziren eta etxean bizitzen segitu zuten; inork ez zuten kontratu berria egiteko beharrik ikusi, ez etxearen jabeak ezta Milak eta Josemarik ere. Edo nola ere, aurtien ugazabak etxea behar zuela eta, etxetik alde egiteko agindua eman zien.

Milak eta Josemarik, alokatutako etxearekiko beren eskubideak zeintzuk izan zituzkeen jakiteko Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora jo zuten.

Atton Fernandezek, KIUBeko arduradunak azaldu digunez, 1985. urte art. alokairuak arautzen

zituena legeak "derrigorrezko luzapena" aurrikusten zuen. Hau da, behin etxea alokatuz gero eta kontsumitzaileak —etxea alokatzen duenak kasu honetan— kontratuaren luzapena eskatuz gero, kontratua amaitzean, etxearen jabeak nahitaez utzi behar zien etxea errentan. 1985. urtean, dekretu batek "derrigorrezko luzapena" bertan behera utzi zuen eta beraz, etxe-jabeak kontratua amaitzean, ez dauka kontratua luzatu beharrik.

Milak eta Josemarik, etxearen alokairu kontratua 1983. urtean sinatzean, "derrigorrezko luzapen" eskubidea dute, eskubide hori bertan behera uzten duen dekretua baino lehen sinatu bait zuten kontratua.

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan, Mila eta Josemariri kontratu berririk ez sinatzeko

ahelkatu zieten, aurrekoa oraindik indarrean dagoela azalduz. Alokaturako etxean segitzeko eskubidea dutela azaldu zieten eta beraz, beraiek nahi ezean, ez dutela etxetik alde egin beharrik.

Kasu honetan behintzat, Milak eta Josemarik, beren eskubideak ezagutzeko aukera izan dute eta ez dute etxetik alde egin beharrik izan.

OHARRA

Joan den astean argitaratu genuen erreportaiaren sarreratxoan, Asun zertizan emakume batez mintzatu ginen. Emakume horren benetako izena ezkutatzearen erabili genuen "Asun". Zoritxarrez, argazkian agertzen zen emakume baten izen bera erabili genuen. Beraz, garbi utzi nahi dugu erreportaiaren sarreran aipatutako "Asun" eta argazkikoa ez direla pertsona bera. Barka nahastea,

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU


San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

**BRANKA
jatetxea**

Eguneko menua eta karta

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

“EHU nahiko estatalizatua dugu”

Jesus Arzamendirekin unibertsitateaz hitzegiten

Jesus Arzamendi arrasatearra Seminarioan aritu ondoren, Donostiako EUTGn burutu zituen ikasketak. EUTGn bertan aritu zen irakasle zenbait urtez eta ondoren Unibertsitate publikora pasatu zen. Gaur egun, Zorroagan aurkituko dugu. Publikoan zein pribatuan izandako esperientzia emankorra izan dela aitortzen du eta behar bada ametsak betetzeko aukera gehiago ikusi zuelako pasatu zela Unibertsitate publikora.

— Zorroagari buruz sarritan entzun ditugu komentario despektiboak. Zer dela eta hori?

— Nire ustez mitoak, topikoak direnez gero, normalki ez dira existitzen. Ez dut uste Zorroaga fakultate oso txarra denik, ez eta Estatuko egunkariren batek esan bezala, Europako onenen artean dagoenik ere. Zorroaga, gure herriko hutsune handi bat bete nahian, batzuen borondatez, une batean gogo handiz sortutako fakultatea da.

Handik ateratzen direnak, gonbaratuz oso profesional onak direla esango nuke. Gizarteak horien beharra sentitzen duen beste gauza da, baliteke gizarteak edo politikoez duten sentsibilitatea eta gizarte batek behar duena desberdina izatea. Euskalduntze lanetan, esaterako, pedagogoen lana oso garrantzitsua izan daiteke.

— Euskara aipatu duzunez, EHU*n euskararen aldeko politikarik ba al dago?*

— Gai horretan, nahiz eta nire garaian nahiko utopikoa izan, utopia horren barruan nahiko pragmatikoa izan naiz beti. “Bihartik aurrera funtzionari guztiek euskaraz egin behar dute” esan genezake. Hori Irlandan egin zuten. Gobernu nazionalistak gaelikoa ikastera behartu zi-

tuen denak eta orain inork ez du hitz egiten. Hori ezin da dekretuz planteatu. Unibertsitatean egon diren ikasle eta irakasleak ez dira euskaltzale amorratuak izan betidanik. Hori gaurtik biharrera ezin alda daiteke. Denon artean lan handia egin behar dugula uste dut. Unibertsitate ardura daramatenek garbi izan behar dute zein helburu bete behar diren, zein epetan eta zein neurriekin.


Baina bestea utopia antzua dela esango nuke, nik nahijago ditut utopia sortzailak.

“Unibertsitatean, euskalduntzea ezin da dekretuz planteatu”

— *Monreal, Barbera...*

— Desberdinak dira, oinarrizko heziketan, estiloz zein jarreraz. Nik uste beren funtzioak, Goiok bere garaian eta Barberak orain aprobata edo gehiagorekin gainditu dituztela. Gonbaratu, ezin gonbara daitezke, oso baldintza eta testuinguru desberdinak izan dituztelako. Ezin dira gonbaratu, Monrealean garaiko Unibertsitatea, Barberak jasotakoa eta gaurkoa

— *Zu Barberaren taldean egon zinen.*



Jesus Arzamendi

— Beharbada, ni beti izan naiz instituzioaren aldekoa. Bere garaian, Zorroagako dekanordea nintzenean Goioen alde egon nintzen eta orain Barberarekin ere.

Nire asmoa, Unibertsitatea hobetzea zen eta gure kasuan Zorroagako ingurunea. Nahiz eta gehiago espero, apur bat egin dugu.

— *Zehaztu zeniguke apur hori?*

— Erretoreordetan hiru

la izan behar derrigorrez, baina horrela gertatzen zen eta gure lana akuilua hartu eta jendea mugiaraztea zen.

— *Zeintzuk dira zure ustez UPVren arazo nagusiak?*

— Autonomia eza aipatuko nuke. Madrilgo ministraritzaren menpe gaude gauza askotarako. Ikasketa planak, ikasketa berrien onarpena ministraritzak eman behar du, departamentuen onarpena edo oneritzia Madrilek eman behar du; nahiko estatalizatua dugu Unibertsitatea.

Gaur egun, oso garrantzitsua izan daiteke edozein alorretan lanbide berriak sortzea; ministraritzak eta estatalizazioak ez du aukera handiegirik ematen hori egiteko. Pribatuek arrazoi izan dezakete gizartearen beharrei erantzuteko malguagoak direla aipatzean. Guk apostu hori jaso eta egokitze prozesua emateko irtenbidea asmatu behar dugu.

Unibertsitatearen eta erakunde ofizialen arteko harremanak ez dira oso gozoak. Nolabaiteko kontsentsua garatu behar da harreman horiek iraunkorrak eta arinak izan daitezten.

Dorletako Txirrindulari Eskola

107 neska-mutiko, 8 maila ezberdinetan

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak, dagoeneko hamar urte daramatza lanean; eta gaur egun, zalan-tza barik lan horren fruituak batzen ari dira.

Hasieran hamar txirrindularirekin hasi baziren lanean, gaur 107 neska-mutiko mugitzen dituzte zortzi maila ezberdinetan.

Horrela, orain bi aste Txirrindulari Eskola osatzen duten pertsona guztiak (zuzendaria, entrenatzaileak, txirrindulariak, etab.) Gatzagan bildu ziren, Dorletako Amaren elizan, komunikabide eta zaletuen aurrean aurkezpena egitera.

Esan dezagun, hainbat instituziok ematen diotela laguntza Txirrindulari Eskolari; hala nola: Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Gatzagako Udalek, Almen Kirol Elkartek, Mondragoeko Txirrindulari Elkartek, Deba Garaiko Zikloturista Elkartek, Eskoriatzako Kirol Elkartek, eta azkenik, Aretxabaletako Kirol Elkartek.



Gatzagan, Txirrindulari guztiak elkartu ziren aurkezpenean

Lehendakari lanetan, Javier Garcia Cambra. Lehendakariordea, Julio Isazelaia, eta idazkaria Luis Mari Berezibar.

Kirol-medikua Sabin Padilla dugu, eta prestatzaile fisikoak, ostera, Aitor Nafarrate, Martin Nafarrate eta Jose Antonio Cuesta.

Afizionatu mailan 17 txirrindulari arituko dira, Lagun Aro-Fagorren dirulaguntzaz, eta Antxon Iraetaren zuzendaritzapean.

Gazte mailan 14 mutiko, Jose Luis Olivenza eta Xabier Garcaren ardurapean, eta Lagun Aro-Fagorren diru-laguntzaz.


12 txirrindulari lehen urteko kadeteetan, Alejandro Altunaren babespean; zuzendariak Juan A. San-

chez eta Jose M. Roldan. Bigarren mailako kadeteetan, ostera, zortzi mutiko eta Chapimeren dirulaguntza; arduradunak Rafael Antia eta Juan M. Martinez.

Gainontzeko lau taldeak, Arrasate Kirolak babespian arituko dira. 19 infantil, Juan Luis Gorroñoren zuzendaritzapean; 11 alebin (zuzendaria, Boni Garai); 3 printzipiante (Zuzendaria, Jose Galan), eta bukatzeko bi neska (Amaia Gartzia eta Arantza Fernandez), Jose Manuel Garcaren ardurapean.

Hasieran esan bezala, beraz, Dorletako Amaren Eskola hamar urteko lanaren fruituak batzen ari da gaur egun.

Zorionak, eta segi aurrera!



**E D E L
TAPIZTEGIA**

**Gortina
Alfonbra
Koltza**

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



podiuma

**Jon Egiluz, edo
Rugbyaren
berezitasunak**

Jonek 21 urte ditu, eta azken boladan Rugby ligan gertatutakoekin harri eta zur gelditu da, bere taldekideak bezala.

Dagoeneko hiru urte daramatza kirol hau egiten. "Rugbyaren berezitasunak gustatzen zaizkit, bixiki-riak. Tipo batzuekin borrokan ibili, gogor gainera, izerditan egin, balna partidua bukatzen denean denok elkarrekin zerbezak edatera joatea. Giro jatorra, eta, ondorioz, gustora sentitzen zara hemen".

Lagunarteko kirol honetan, ordea, badirudi batzuetan modu itsusiak erabiltzen direla, modu zikinak. "Hiru urte hauetan, egia esan denetik ikusi dut".

Alde batetik, Euskadiko selekzioa egongo litzateke. "Euskadiko selekzioa? 'Mafia' hutsa da hori. Denboraldi hasieran, ekipo guzti-tako jokalariek ikusi aurren, erabakita dago nortzuk joango diren. Imaginatu, gure partiduetara ez da urte guztian selekzioko ordezkari bat bera ere azaldu".

Beste alde batetik, jokalarien joan-etorriak. "Gai horretan ez dago inolako kontrolik; Hernani, Getxo, eta gol-mailako talde horiek, askotan gure mailako, Euskal ligako jokalariekin etorri beharrean, plaust, lehen mailako bloke



guztia jartzen dute kantxan. Horrela zaila da guretzat burua altxatzea ere!".

Eta zer esanik ez, bizkaitar eki-poei buruz ere hitzegin dugu Jonekin. "Bizkaitarrak eta bizkaitarren 'pifoak'. Begira, Rugbyan ez dago zigor gogorrik; asko botata, tranparik handiena eginda ere, Federazioak 5.000 pta.ko isunak jartzen ditu. Bizkaitarrek badakite hori, eta denetik egiten dute: Federazioak izendaturiko arbitroen ordezkariak jarri, aktak falsifikatu... auskalo zelako astakeriak egin dituzten horiek!".

Eta halako gauzak ikusita, jokalariek ez al dituzte animoak galtzen? "Ez dakit. Baina Federazioak neurri gogorrak hartu beharko lituzke, bestela jendea nazkatu egin daiteke, eta Rugbya utzi. Eta hori falta zaigu bakarrik...bestela ere gutxi gara, eta gainera jendeak alde egingo balu... Akabo!".

**Skahs-eko I.
Aukea saria**

Ostegun arratsaldean hasi, eta igande eguerdirarte luzatu zen Musakolako kiroldegian Skasheko lehenengo Aukea saria. Aurrez aurre Euskal Herriko jokalariek onenak, Euskadiko Txapelketarako puntuak ematen zirelako.

Gizonezkoetan 60 jokalariek aurkeztu ziren; emakumezkoetan 20.

Hiru arrasatear izan genituen txapelketan: Jose Antonio Sagasta, Jose Caballero, eta Daniel Lasagabaster. Dena den, ez zuten aukera gehiegirik izan, aurkakoei erakutsitako maila altuagatik.

Igandeko finalerako jokalariek bizkaitarrak heldu ziren, bai emakumezkoetan, eta bai gizonezkoetan ere.

Lehenengoan Marta Garros izan genuen irabazle, Matxalen Laskibarri erraz irabazi eta gero (17-15, 15-10 eta 15-10).

Andoni Llosak, osteran, lan handia egin behar izan zuen Javi Gutierrezen kontra. Lehenengo seta Javirentzat izan zen (15-12); baina ondorengo hiruretan Andonik Aukea saria eskuratu zuen (15-4, 15-10 eta 15-14).



BALLENEROS KALEA, 12-1. A - 20011 DONOSTIA

TELF. 943 - 46 69 06 / FAX 943 - 46 68 94

- ITZULPENAK
- HIZKUNTZ MAILAKETA-FROGAK
- DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Ekuskarazko musika ghettoan

ATBko "Musikantoi" saiorako Oihuka disketxera egin berri dugun bisitaldian berpiztu zitzaidan arazoa. Bertako arduraduna den Marino Goñik garbi azaldu zigunez, erdaraz egiten duten hemengo musikoei bost milatik hamar milara bitarteko disko-kopurua saltzen dute estatuan, bataz beste. Aldiz, euskaraz egiten dutenek ezer gutxi saldu ahal dute kanpoan, eta Euskal Herrian bertan saldutakoarekin konformatu behar. Eta arazoak berdin kolpatzen ditu rock taldeak eta bestelako euskal kantariak. Lertxundi, Laboa, Ruper edo Oskorri maiz irten dira estatuan, zehar kantatzera, baina ez dute ondoren apenas diskorik saltzen han.

Eta arazoaren gakoa ez datza kalitatean edo musika-estiloan, ze euskal musikan egon dira emaitza

borobilak, objektibo izanda guztiz esportagarri izan direnak, eta musika-estilo ezberdinetakoak. Argigarri izan direnak, eta musika-estilo ezberdinetakoak. Argigarria da, zentzu honetan, Kortaturen kasua. Kortatuk batez ere, erdaraz egiten zuenean arrakasta dexentea lortu zuen estatuan, baita disko ugari saldu ere. Baina, "Kolpez kolpe" euskara hutsen kaleratu zutenean seko jaitsi ziren salmentak, nahiz eta oraindik estatuan euskarazko diskorik salduena izan.

Ruper Ordorikari entzuna diot euskal kantari zaharrenek sasoi batean izan zuten kanpora gutxi irteerako joerak dexente trabatu duela ondorengo zabalkundea. Benito Lertxundi ez zetorren inolaz ere bat eritzi horrekin eta arrazoi politikotara jotzen zuen zergatiaren bila.

Marino Goñik, berriz, diskoen banatzaile eta saltzaileengan kokatzen du oztoporik nagusia. Euskal musikoei, oro har, kritika onak jasotzen dituzte irteten direnean, eta arrakasta lortu ere bai entzuleen artean. Baina gero diskoak ez dira iristen entzulego horrengana banatzailean eta saltzailean ausardia faltarengatik. Eta hesi hori gaindiezina ikusten zuen Marinok; nahiko ezkor agertu zitzaigun.

Euskal diskoaren industriarako garrantzi handia luke merkatua zabalbatzeak, eta euskararentzat zer esanik ez. Irudimena gogor astindu behar, bidea aurkituko bada. Bestela luzaroan izango dugu euskarazko musika ghettoan.

Mikel Irizar

V. Igoera Gorlara

Bergarako Udala Sari Nagusia

Mendiko Euskal Auto-Txapelketa

1990eko martxoaren 25ean

Entrenamenduak 10.30etan

1.zati ofiziala: 11.45etan

2.zati ofiziala: 13etan

Antolatzaileak:

Oiz Eskuderia


Scratch Kluba (Bergara)

Gurutze Gorria


Bergara Racing



KODIAK FASHION



DENA KIROLARENTZAT



LORAMENDI

KIROLAREN

INTERSPORT®

Euskararen prozesuan eliza

Kristaigintza garaia garrantzi handi-koa izan zen, liturgian herri hizkuntzak erabiltzean hizkuntza ez-erromani-koak hizkuntza idatzira egokitzeko.

Euskalerrian, Elizak euskarari eutsi egin diola esan beharra dago, Trentoko kontzilioko arauak, herriari erlijioa bere hizkuntzaz predikatze eta irakasteko agintzen zuten arau hauek, oso mesedegarri gertatu bait zitzaizkion.

Alfabetatzea elizaren bidez. 1600.ean Kalagurriko gotzaiak bere elizbarrutiko euskal lurralde bakoitzerako dotrinak euskaraz inprimitzea eta predikua ere hizkuntza horretan egitea agindu zuen; erabaki hau 1698an berrargitaratu zen.

Irakaskuntza gaztelaniaz zenez, euskaraz irakasten zen kristau ikasbidea izan zen euskal ikasle asko eta askorentzat euskaraz irakurri ahal izateko modu bakarra. Gertaera honek izugarritzko garrantzia du.

Beraz, administrazio zibilean gertatu zen bezala, eliz barrutietan elizkizunak

antolatu ahal izateko euskarak izan zuen garrantzia argi eta garbi dago:

— 1539an, Iruñeko katedraleko kabildoak euskara zekien gotzai bat auke-ratzeko beharra azaldu zion Carlos V.ari.

— 1604ean, Iruñeko Udalaren akta batean agertzen denez, sermolaria euskalduna izatea erabaki zuten erregido-reek.

— 1607an Lizarran euskara ez zekien erretore bat izendatzearen ezeztape-na eskatu zuten...

Eliza eta euskararen galera. Idazle batzuk euskara galtzearen errua zenbait apaizek euskara bazterteari bota diote. J. Mokoroarentzat, "Euskara Naparroan irauñ, gutxigorabehera kleroak —elizan erabiliz eta landuz— babestu zuen arte irauñ zuen".

Arabaren ere, Landazuriren eritziz, euskara galtzearen arrazoirik nagusia "… Arabako herrietan hizkuntza ez zekiten pertsonak erretore izendatzea" izan zen.

Iparaldean, Siadekok egindako iker-

ketaren arauera, gaurregun euskara gutxien ezagutzen dutenak apaizak dira, eta azken 50 urtetan aurreko 250 urteetan baino gehiago deseuskaldundu da.

Beraz, Elizak euskararen alde izan duen jokabidea positiboa izan bada ere, aipatu dezakegun akatsa hau da: apaizgoa prestatzean eta goi mailako irakaskuntzan euskararik ez erabiltzea. Halere, euskarak gainontzeko erakundeengandik jaso zuen laguntza eskasa izanik, Elizaren jokabidea hizkuntzari eusteko funtsezkoa izan da: euskaraz idatzi duten lehen idazleak elizgizonak izateaz gain —XVI. mendetik XIX. menderarte egin den literatura, ia dena, elizgizonek egina da— euskararen suspertze lanean aritu eta ari diren hainbat eta hainbat elizgizonak dira. Hitz batez esanda, elizgizonak izan dira mendeetan zehar euskararen aintzindari.

Hona hemen batzuk: Etxepare, Leizarraga, Axular, Azkue, M. Lekuona, J. M. Barandiaran, Villasante...

Atalataikoan

Aukerako ibilgailuen azoka

Udalaitz Instalazio berriak

Markulete Polig. Uribarri Auzoa. Arrasate

1990eko martxoaren 24 eta 25ean

* Berrikusiak

* 18 hilabetera arteko
garantiaz

* Finantziatuak



AUDI-90 / AUDI-100 / AUDI-200
PASSAT
GOLF
OPEL SENATOR
PEUGEOT-405
FIAT-UNO
FIAT REGATA
SEAT IBIZA
RENAULT-5-TURBO
FORD FIESTA
R-11
BMW-315-318
PEUGEOT-205-GR
OPEL-10-S
eta azkoz modelo gehiago

ATEAK ZABALIK

martxoak 24. Larunbata:

*goizeko 10etatik-1etara eta
arratsaldeko 3etatik 7etara.*

martxoak 25. Igandea:

goizeko 10etatik 2etara.

Nerabezaroa (V)

Oraingo arte gurasoen ohiturak ikusi ditugu, eta ondoren geure buruari egiten diogun galdera zera da: zer eragin dute gurasoen ohitura horiek seme-alabengan?

Badirudi gursoek erre eta edaten dutenean, seme-alabek ere ohitura horiek izan beharko lituzketela, edaten ez dutenen seme-alabek baino proportzio haundiagoan behintzat. Hala ere, gauza ez da hain garbi agertzen.

Alkoholaren kasuan noizbait probatu edo maiztasun batekin edaten duten nerabeen kopuruak ez du erlaziorik gurasoen ohiturekin. Ikus dezagun:

gurasoek erretzen ez dutenen taldean gehiago dira noizbait tabakoa probatu duten gaztetxoak, eta gutxiago berriz, aita-amak erretzaileak dituzten seme-alaben artean.

	Seme-alabek probatu edo edaten dute			
	Bai		Ez	
	Z	%	Z	%
Gurasoek edaten dute	260	81,25	60	18,75
Gurasoek ez dute edaten	61	79,22	167	20,77

	Seme-alabek erretzen dute?			
	Bai		Ez	
	Z	%	Z	%
Gurasoek edaten dute	40	32,25	84	67,74
Gurasoek ez dute edaten	93	47,69	102	52,31

Alkohola probatu duten gaztetxoaren portzentaia berdina da, gurasoek edaten badute edo edaten ez badute. Tabakoaren kasuan, berriz, gauza bitxia gertatzen da,

Guzti honek, zer esan nahi du? Fenomeno hauek argitzea ez da beti gauza erraza, baina argi dagoena zera da: inguruak, ingurugiro sozialak, eragin haundiagoa duela gaur egun gazteengan, famili arteko giroak baino.

Badirudi telebistak, publizitateak, lagunak, eredu sozialak..., gurasoek dituzten ohiturak baino gehiago baldintzatzen dituztela nerabeen ohiturak.

*Eukeni Olabarrieta
Arantza Lizaso*



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnok: 79-24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

Natura, harreman gune berezia

Duda barik, apur-apurka, Arrasateko gazte ugari mendia hartu du berriro ere astialdiaren erreferentzi puntu moduan, eta hori pozgarri da. Kasualitatez horrela gertatu da eta kitto, seguru asko ez da bilatu behar beste azalpen handirik, baina Besaide Elkar-teko zuzendaritza gaztearen dinamika berriak ere izan lezake zer ikusirik. Oraingoz behintzat, zelaibaiteko erantzuna eskaintzen ari da, eta aurrerantzerako ere ez dirudi ilusio eta proiektu berriren faltan dagoenik.

Baina, eta horrela frogatzen da behin eta berriro, mendizaletasuna barnean gordetzea ez da erraza, edo hasten den askok behintzat

denboraldi bat egin eta alde batera uzten du. Egungo gizarteak eskaintzen dizkigun astialdi moduak -tabernak, edaria, gaua, telebista...- indartsuagoak dira antza, edo ez da bilatzen mendia edota natura, eta aipaturiko modu horien arteko ganorazko oreka. Eta, izan ere, ez da txantxetako, batetik gizartearen ohizko molde horiekin apurtzea erraza ez delako; eta bestetik, askotan mendia, natura edo abenturaren lehenengo pausuak benetan txarto ematen direlako: asko ibili, sufritu... Eta zergatik? Finean, mendiak -edo naturak- eta abenturak funtsean suposatzen duena ganoraz barneratzen ez delako -hots eta beste zenbait gauzen artean-,

mendia harreman marko edo gune berezia dela; naturarekiko, norberarekiko eta lagunerekiko harreman gune benetan ederra eta interesgarria. Gehiegitan traspasatzen dugu natur gunera gaurko gizarteak eskaintzen digun baloreetariko asko: lehiaketa, kontsumismoa, astialdi ereduak... Baina hori beste noiz-baiterako utziko dugu.

Azkenik, mendian hasten bazara aholkurik onena: goza itzazu naturak eta harreman gune berezi horrek eskaintzen dizkizun edertasun guztiak, patxadaz eta denboraz, mendi edota naturaren grinak bere hatzparretan harrapatu arte. Horrela izanik, benetan zaila izango duzu grina horri uko egitea.

Hankamotz

AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,
Tfnok: 79 18 86 - 79 45 99
ARRASATE

TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKOA

BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY

AE

Garibal 10,

ETXEKO TRESNAK
ARGITEGIA

SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA

Construcciones **ARRASATE S. L.**

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

MARKELIÑE
mimo taldea

“**MUTU** **LILURAGARRIA**”


Eguna: **martxoak 24**

Ordua: **arratsaldeko 6etan**

Lekua: **Amaia antzokia**

Sarrera: **200 pta.**

ARRASATEKO UDALA



Aste gazte

Gazteentzako Aterpetxea (edo albergea) gehienon poltsikorako alojamentu era merkea da. Mundu osoan 6.000 aterpetxe baino gehiago daude. Aisialdiko ekintzak praktikatzeko aukera handia eskeintzen duten lekuetan kokatuak daude, batzuk kirol ezberdinak egiteko bereziki ekipatuak; hala nola, bela, piraguismoa, zikloturismoa, etab. Beste batzuk, osterara, arte eta histori ikuspegitik inguru aberatsak ezagutzeko aukera ematen dute.

Aterpetxeak erabiltzeko beharrezkoa da txartela eskuratzea

Nahi izanez gero, Gazte Zerbitzuan egingo dizugu tramitea.

Bekak

* Atzerrian musika, dantza, arte liriko eta antzerki arloetan ikasketak luzatu eta hobetzeko bekak. Aipatutako edozein espezialitate artistiko edo teknikotan gaitasun edo esperientzia maila nehikoa dutela egiaztatuko duten titulu edo egiaztariak aurkezten dituztenentzat. Epea: 90-04-07.

* Lovaine Berri Unibertsitate Frantsesean, 1990-91 ikasturtean, elkartrukean ikasketak egiteko bekak. Frantses hizkuntza menperatzen duten 35 urtetik beherako goimailako graduatuentzat. 18.000 franko belgiar hilero. Epea: 90-03-30.



* Lieja-ko Unibertsitatean (Belgica), 1990-91 ikasturtean, elkartrukean ikasketak egiteko bekak. Frantses hizkuntza menperatzen duten 35 urtetik beherako goimailako graduatuentzat.

30.000 franko belgiar eta bidai-boltsa. Epea: 90-03-30.

* Bruselaseko Unibertsitate Librean, 1990eko udan, elkartrukean ikasketak egiteko 3 beka. Ikasketak: Frantses Hizkuntza eta Literatura. 35 urtetik beherako goimailako graduatuak edo aipatutako ikasketak ikasten ari direnentzat. Frantses hizkuntza menperatu behar da. Epea: 90-03-30.

Lehiaketak

* "Eduardo Carranza" Elaberri Saria (Barcelona). Gai librekoa, gaztelaraz. Saria: 100.000 dolar eta obraren argitalpena. Lanak aurkezteko epea: 90-04-30.

* "Llamador" Poesia Saria (Jerez). Gaia: Aste Santua. Gehienez, 100 bertso. Saria: 50.000 pta. Lanak aurkezteko epea: 90-04-30.

* "Casino de Mieres" Idazleentzako Lehiaketa. Gehienez, 120 orri. Saria: 500.000 pta. eta obraren argi-

talpena. Lanak aurkezteko epea: 90-04-30.

* Piano Lehiaketa (Linares-Jaen). 20 urtetik behera dituzten gazte pianojoleentzat. Saria: 150.000 eta 20.000 pta. bitartekoak. Izena emateko epea: 90-04-15

* Getxoko Nazioarteko XIV Jazz Jaialdia. Jazz taldeentzat. Saria: 125.000 pta eta dietak. Izena emateko epea: 90-5-19

Ihardunandiak

* Kontzientzi Eragozpena eta Antimilitarismori buruzko Ihardunaldiak. Antolatzaile: Euskadiko Kontzientzi-Eragozleen Elkarte. Gasteizen.

* "Zimbabwe-k Irakasleak behar ditu":

Zimbabwe-ko Errepublikak 2. mailako heziketarako 5.000 irakasle behar ditu. Hango gobernuak laguntza eskatu dio Eleiz Katolikoari eta honek programa bat jarri du martxan. Baldintzak: maisu-maistra edo lizentziatua izatea, ingeles hizkuntza menperatzea eta gutxienez 2 urtetako disponibilitatea Zimbabwen lan egiteko.

Informazioa: 79 09 00 Tfnoan.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**



J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubetan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldean.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskek tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskeintzen da. Tfnoa: 79 07 73

LANA

- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- OHoko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egiteko. Deitu tfno honetara 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- REM IEE lehen kurtsorako irakaslea hartuko genuke, egunean bi orduz, klase partikularrak emateko. Interesatuak dei: 79 59 08 (Marilu)
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, jattetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxeetan eta etxez-etxe bideok saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko. Tfnoa: 79 06 66. Goizez.

SALEROSKETAK

- Brontzeko lanpara ederra salgai. Tfnoa: 792358
- Gozotegirako labe handia salgai. Bere fermentaziorako kamara duelarik. Saba markakoa. Tfnoa: 79 23 58
- BMX Torrot bizikleta salgai. 12.000 pta. Baita JOMA markako takozko zapatilak ere. Berri-berriak. 36. zenbakia. 1.500 pta. Dei 79 97 69 telefonora 8etatik aurrera. Inma.
- Hozkailua salgai egoera onean. Dei 8etatik aurrera 79 45 10 tfnora.
- Bi markako SONOR soporteko platerak, Bateriazko aulkia eta paiste 3000 Rude markako platoa saltzen dut. Gutxi erabilita daude. Telefonoa: 79 91 59 Xabier (eguerdiko 1etatik 2etara)
- R-5 GTL kotxea saltzen dut. SS-M aluminiozko llantak. Beltza. Zapaia solarra. Telefonoa: 79 91 59. (Eguerdiko 1etatik 2etara)
- Vespa 200 salgai. Berri berria. Deitu 79 24 66 tfnora.
- PC erostegatik Yoshida ITX-10 ordenagailua salgai, 64 k. Baita ere Sanyo SLIM-3 magnetofonia, 2 Yoystich eta hainbat joku. Guztira: 20.000 pza. Tfnoa: 78 15 86.

DENETARIK

- Otsailaren 14ean monopatina galdutuen Santa Barbara inguruan. "Punk Smile" idatzia du atzekaldean. Mesedez, ikusi baduzu dei 79 95 71 telefonora (Josu)



Bittor, Juan Jose eta Pedro Errasti Uribarren




*Goiz abaildu zen gaua
goiz eta ustekabean;
ilun garratzean izan dadila
izar gidari zuen oroitzia*

Bittorren Udaletxeko lankideak

Famauen ahotik

Patxi Mendizabal; gerra aurreko euskal kristau ikastoletako maixue



Maixutza Panplonan eñ

Hamabi urte arte, Don Elias Azpiazu "Txortan"ekin ibili nitzen eskola municipalien. Gero Altsasun fraillietan bost urte eñ nittuen, "Humanidades" estuixetan handik hamazortzi urtekin panplonara, magisterixo eskolan maixutza eitten. Hogeitahiru urte ingurukin soldautzie eta dana bertan eindde etorri nitzen etxera.

Maixutzan, Zarugaldeko eskola municipalien hasi

Orduen bi eskola municipal eozen, bata Portillon semiek Zarugalden aukena eta bestie Juan Mari Urrutiak aiuntamentuen aukena. Suertau zan, Portillok estubixuek eiteko alde eñ biher auela eta ba, haren ordezt neu hartu nindduen.

Gero errepublikie etorri zan eta errepublikiekin be urte ta piku eñ nittuen eskola municipalien Zaitegikin batera.

1933en lehenengo ikastolak

Errepublikiekin gurutziek kendu eta eskola laikuek eitten hasi zien. Orduen,

Jose Juakin Arin parrukuek, Jose Markiegi eta Leonardo Guridi abariek, euskalzale eta elizgizonak, horren alternativa moruen ikastolak sortu gure zittuen.

Juan Mari Zaitegi eta bixok, eskola municipalien probisional geontzen eta libre geratu gefenien esan euzkuen, ia juengo ginen eskolie emuten.

Guk, ez gaukela inkonbenienteik eta ba halaxen, 1933en sortu zien lehenengo ikastolak, "Euskal Kristau ikastolak".

Gero Zaitegik Bergarako eskola municipalera alde eñ auen eta haren ordezt Juanito Etxebarria sartu zan.

Euskal Kristau ikastolak 1933-36

Abare etxeko beheko aretuen gauken eskola bat eta batzokiko frontoien, Gurean beste bat. Guztire ehun ume inguru eukiko gittuen.

Bakotxak bost pezeta pagetan auen eta aparte laguntzailiek be bagauken.

Ointxe letxe danetik emuten zan, irakurri eta eskribiru euskeraz eta erderaz, redakziñuek, geografia, matematika... Gauza kuriosuek be pasau izan jat. Batek beti redakziño gainien letra haundixekin "V.E.R.D.E" ipintten auen. "Viva el rey de España".

Orduen ikastolak indder haundixe auken. Alfonso eta Julio Gorroñogoitia, Zurdue, Agiriano, Felix Arriaran, Jesus San Miguel (Eibarko Arziprestie), Jose Berezibar (St^a Agerako Kapellaue)... Danok feure ikasliek izandakuek die. Gero 36xen gerrie etorri zan eta akabo dana.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrekerixak

Aspaldi honetan bide bazterretan noiznahi ikusten die aintxintxikalarixak. Batzuk ipurdixak karriau ezindda, beste batzuk kartzelatik ihesi berrixan baiño bizkorrago.

Badie Bergaran bi aintxintxikalaria lagun, bata maratobietan eta, lenengotaikua geratzen dana, bestia, hanketan repris gutxi samar euki arren, berandu baiña seguru ailegatzen dana.

Juntatzen die tabernan eta konbestaziñuak beti betikora.

— Ze moduz habil ba? —bizkorrak.

— Ondo. Atzo be hogeik kilometro egin najittuan eta aidoso gaiñera. Aurtengo maratobietan itxura samarrian ibiltzeko esperantzia jaukat.


— Jakingok pa astua ondo entrenau eta gobemau arren eztala zaldikarrerak irabazteko gauza.

— Hori be hala izangok, baiña injustizia asko ikusten juat karreretan.

— Zer nahi dok pa, urrezko medallia azkenenguai emutia, ala?

— Ba gauza bat esangostat. Zuek pasua luzetxuagua eta bizkortxuagua daukazuela? Konforme. Baiña erresistentzia zer? Erresistentziak etxaukak meriturik ala? Maratobietan izate guztia erresistentzia dok. Zuek bi ordu t'erdi inguruan akabatzen dozue eta ala! dutxara. Gure modukuak berriz lau-bost bat ordu han, jota sua, euzkixak gehixen berotzen daben orduan. Hor ikusten dok zein gauzan dan eta zein ez.

Juan Martin Elexpuru



EGIDO

Ordezko Piezak

Automobilerako ordezt piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuadernaziok
Planoen erreproduktzia
Offseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Aste Santua, 1924

Joan den astekoa bezala, hau ere Aste Santuko argazkia duzue, Ostiral Santukoa zehazkiago, 1924koa. Argazkia gaurko Biteri Etorbidean atera zen. Eskuin aldean ikusten den eraikuntza Biteri Eskola da.

Harentzako zatia neskentzako eskola eta honantzakoa mutilentzakoa. Erdian eskailerak. Hona hemen argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskuinera: Isaias *Martin Bixi*, Julio Barandiaran, *Mentu*. Erdian Gofi,

alkatea, Joxe Lizarralde *Maala Txiki* eta Ignazio Juldain. Aingeruak: Jaime Zubialdea *Torres*, erdikoa ezin izan dugu ezagutu eta Luziano Aranbarri.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tinoa: 77 08 15

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

Gaizkilea	Deia	Dago	Ikusten	Danborrak	Behatzeak
Nafarroa	Xake	Emakumeekiko dei hitza	dun	Kontsonante	uztaiak
Behereko	jokalariai		Sendiak	bikoitza	Sarrera
Trebe			Anarkista		
Erronkarik			Lehenengo		
ibai			biak		
		Arrantza		Zerga	
		aparatu		fermatua	
		Bizk.		Kontsonan-	
		omen		tea	
Ikusgailua					Kontsonan-
Zamari					tea
			Musika	Zenbakia	Bizk.
			nota	Eramaten	aitonak
			Berde	gailu	
			mota		
Ekai		Mihi			
Zira		Itas			
ermana		arrainak			
			Agiria		
			Jangai		
			gozo		
Lehenengo		Zinema		Iparretarrak	
persona		saria		Musika	
Hala ere		Deitoria		nota	
			Kolpearen		Kardantxi-
			snomatopeia		loak
			Ipar.		
			Onizigile		
499	Kalekoak				
	Sari				
	olimpikoak				
	Perkusio			Atzikia	
	uzena			Bizkaiko	
	Olerkigin-			herria	
	za				
Burdinolak			Denbora		Röntgen
Apal			tarte		Egona
			Lehen eta		
			azkenekoa		
		Ate			
		zaindari			
		Jugoslaviaz			
		iraultzaile			
Garo				Bokala	Azken eta
Niri				Barazki	lehenengos
				mota	Legetz
		Bokala	Jainko		
		Artsenikoa	ejiptiarra	Pazientzia-	
			Sufrea	ren irudia	
				Utik!	
Huts					
Agian			Zeukana		
			50		
			Garratzak		

Hitz gezidunak

Soluzioak

N	V	Z	L	V	L	O	S	V	V	V
V	N	E	U	Z	S	L	V	K	V	V
B	V	L	V	R	I	I	N	E	I	N
V	Z	V	V	E	Z	L	V	R	I	N
N	I	V	Z	E	L	V	T	I	M	I
R	L	R	E	U	R	K	V	A	R	O
V	K	V	V	V	V	V	V	V	V	V
K	V	V	V	V	V	V	V	V	V	V
L	R	Z	V	R	S	O	I	N	V	H
V	V	V	V	V	V	V	V	V	V	V
N	I	V	G	N	I	M	I	V	G	V
U	V	L	V	V	L	I	D	V	Z	V
L	V	V	L	S	I	R	I	E	L	E
Z	E	Z	B	E	U	M	V	V	V	E
V	V	V	V	V	V	V	V	V	V	V
V	V	V	V	V	V	V	V	V	V	V
V	V	V	V	V	V	V	V	V	V	V
V	V	V	V	V	V	V	V	V	V	V
E	V	V	V	V	V	V	V	V	V	V

ENBIDOTik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERAÑA AHOLKULARITZA

Orotarako aseguruak

Kontzeziño kalea 4, etxabea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Urtero Eusko Jaurlaritzak Irakaskuntza Ertainetako neska-mutilentzat antolatzen duen Urruzuno Literatur lehiaketan, Xabier Aranburu Zeziaga bergararrak Poesia Saileko lehen saria eskuratu zuen.

Liburua kaleratu berria dela aprobeztatuz, hona ekarri nahi izan dugu haren lanaren zati bat.

Zementuzko bloke ilunez ernaldia

Hiria...

Txakur beltzez betea

Hiria...

Pentsamendu grisez hornitua

Hiria...

Janzki gaztinkara beraren jabea

Hiria...

Begi moredun gazteak

Infernuari begira

Hiria...

Iri purpurak dantzaka

Hiria...

Odol gorritz estalia

Hiria...

Urre berde guztia

ia desagertua

Hiria...

Esfera urdinez atxilotua

Hiria...

Adreilu laranja,

langile sutsuaren

izate guztia

Hiria...

Iluntasun horiz argitua

Hiria...

Arrosa zenaren irudia

Hiria...

Ile txuridun umea

nora begira


ez dakiela

Hiria...

Hots gardenez sortua

Hiria...

Xabier Aranburu Zeziaga



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

■ “Euskadi gaztea” edo *formula irratia* euskaraz:

Joan den asteazkenetik ate berria zabaldu da euskal irratigintzan, formula irratiaarena euskaraz, hain zuzen. Euskadi Irratiaren altzoan, “Euskadi gaztea” hasi zen emititzen, jatorriz Estatu Batuetan jaiotako eta harez geroztik Europa eta mundu zabalean -Espainia bame, “Los 40 principales” eta halakoekin- hainbeste hedatu den *formula irratia* erabiliz.

Baziren pare bat aste edo, Euskadi irratiaaren ohizko dial horietako batean musika baino ez zela entzuten, ezelango komentariok barik. Geroago jakin izan dugunez, “Euskadi gaztea” zen, frogratan emititzen ari zena, Donostiako Andia kaleko 3. solairutik -Euskadi Irratiaren bulego eta estudioak 7. solairuan daude-.

Asteazkenean, azkenik, goizeko 7.00etan hasi zen emititzen. “Euskadi gaztea”, Euskadi Irratiaren azken ahalegina entzulego gaztea bereganatzeko, munduan zehar hain arrakasta handia izan duen *formula irratia*rekin. Oso pertsonal gutxirekin ordu luzeak bete daitezke, modu merkean. Jeneralean musika eta musika ematen da, iruzkin laburren laguntzaz. Irrati arina eta atsegina, irradi orojakileaz zerikuski eskasa duena.


Euskadi Irratiko arduradunen hitzetan, 15 eta 20 urte bitartekoentzat egin dute *Euskadi gaztea*. Adin horretan ikastolakumeen erodoa ematen bait da erdal musika eta mundurantz. Batzuk itzuliko dira, baina beste asko ez. Euskal irratia inoiz ez ditu, -ez gara orain zergatia aztertzen hasiko- kontuan hartu era serioan, orain arte.

Edure Ormazabal (ETBko *Katu Kaleko* aurkezlea eta Antena 3eko esataria) zuzendaritzapean, sei esatari hasi dira lanean, tartean Jone Larrañaga antzuolarra. Egunero 15 ordu emititzen dute, goizeko 7:00etatik gaueko 10:00ak arte, zuen dialaren 91,3 eta 103,5ean, FMn, noski.

Zorionik beroenak Euskadi Irratiari eta gure ongi etorririk alaiena *Euskadi gazteari*. Zorte ona izan!

Joxe Aranzabal

bideoak



Ehiztaria eta harrapakina

Harrapakin eta harrapakarien arteko betidaniko lehia, eboluzioaren indar eragileetakoa izan da. Harrapakariak trebeago eta arinago bilakatu diren heinean, harrapakinak azkarrago eta zela-tiago bihurtu dira. Afrikako lautadetan, borroka hau beste inon baino hobeto ikusten da.

Guzti hau, “*Bizia Lurrean*” seriearen 11. kapituluan.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



gusto baduzu

■ **Bihotza betean:** Serge Bourguignonek zuzendutako filmea, ostiralean, 9etan. Bere lan eta bikote harremanz aspertuta, neska bat Londredera doa eta bertan modelo bezala egingo du lan. Bere bizitza erabat aldatuko da. Beste antesle batzuren artean, Brigitte Bardot ikusteko aukera.

■ **Rambo II:** Lehenengo zatiarekin nahiko izan ez zuenak, oraingoan bigarrena ikusteko aukera izango du. Odola eta hildakoak, nahi beste. Igande eguerdiako 12etan, beraz, Stallonerekin zita.

■ **American Gigolo:** Paul Schraederen pelikula, asteazkenean, gaueko 9etan. Julian Kay amerikar gigo-loa dugu; Michelle, ostera, Californiako Senatorearekin ezkondua dagoen emakume polita. Bien artean, oso harreman bitxia sortuko da. Antesleak Richard Gere, Lauren Hutton, Nina Van Pallandt.



aste

PROGRAMAZIOA

ASTELEHENA

8.00 **Berriak**
 8.15 **Mondrasport**

ASTEARTEA

12.00 **Berriak** (bezperako errepikalidia)

ASTEAZKENA

8.00 **Berriak**
 8.15 **Zenbat buru, hainbat aburu (Mahai inguru)**
 Gaia: Trafkoa, Saihesbidea eta aparkalekuak.
 Moderatzailea: Jose Mari Velez de Mendizabal

OSTEGUNA

12.00 **Berriak** (bezperako errepikapena)

OSTIRALA

8.00 **Berriak**
 8.15 **Erretratoa**
 Gonbidatua: Jose Manuel Arriola udaltzain izandakoa
 Aurkezlea: Joxe R. Elorza
 8.55 **Musikantoi**
 Oihuka diskaetxeari buruzko erreportaia, The Rolling Stones, Jesus & Mary Chain, Sonora Candela, Barrikada...

LARUNBATA

12.00 **Berriak** (bezperako emanaldia)
 12.15 **Zenbat buru hainbat aburu** (asteazkenekoa)
 13.00 **Erretratoa** (bezperakoa)
 13.40 **Musikantoi** (bezperakoa)

Jasone, Andoni, Jabi eta Iban Andoaingo Bideo Eskolan ikasitakoak dira. Orain arte ederto asko erakutsi dute euren trebezia lanean. Argazkian **Iñaki Aizpuru** Andoaingo Eskolako zuzendaria, ariketa praktikoak irakasten.

Joan den asteazkenean ATBren kamarak Haro, Briones eta Logroñoeko ospitalera joan ziren. Jose asteburuko larunbatean izandako istripu ikaragarriaren berri zuzena jasotzera, asteazkenean bertan **Berriak** saioan emateko. Argazkian Iban Aiesa Bittor Errastiren Peugeot 205aren irudiak grabatzen, Haron.



Zenbat buru hainbat aburu izenarekin Jose Mari Velez de Mendizabalck zuzentzen duen lehen mahaingururako **Eguraldia** gaia aukeratu zen. Lau gonbidatuak ezin hobeto konpondu ziren. Bi eskola zaharrekoak: Joxe Arabaolaza, *Oxiña* eta Esteban Etxabe, *Muxibar*. Eskola berrikoak Pello Zabala eta Ikerlaneko Rafa Bolinaga.



Otalora 2, ARRASATE

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ondo baino hobeto dakizu noraino iritsi nahi duzun, eta zure meritua ikustarazteko besteena gutxiesten dituzu. Ez izan hain zeurekoia eta txalotu besteen ekintzak.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Itxura onez azaltzen saiatzen zara, baina benetan nekatuta eta gaixo sentitzen zara. Sendatzeko erremediorik onena atsedena da Leo.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Arazo larriak daukazu aspaldian eta pentsakor ibiltze horrek bakarrik sentierazten zaitu. Saiatu entzungo dizun norbaiti zure ezbeharrak azaltzen; lasaiago sentiutuko zara.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Arazo guztiak gainditu dituzu gogortasun moral horri esker. Ondo administratu dituzu orainarteko irabaziak, horregatik zabilta hain eroso. Ezarria zaindu.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Eguneroko eginbeharra eta aise denbora rutina bilakatu zaizkizu Virgo. Autokritika sakona egiten saia zaitez, egunerokotasunari alde egiteko itenbide aproposa bilatuko diozu eta.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Reflejoak motelduta daukazu azken aldi honetan, denborarik galdu ezin horrekin eginbehar askotan murgildu zarelako. Ez ahaztu gizaki orok perezarako eskubidea baduenik.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Aspaldian ez diozu batere jaramonik egin elikadurari eta zure metabolismoa ondo ez dabilela konturatzen hasia zara. Janari koipetsuak eta alkohola ebitatzen saiatu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Umore txarrez zabilta laguntza luzatu dizun horrek adarra jo dizula konturatu zarelako. Ez hainbeste buelta eman, aurki ahaztuko duzu eta.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Dudamudatan daukazun ideia horiek gauzatu behar dituzu oraingoan, eguzkiak behar adinako jasankortasuna eta ziurtasuna emango bait dizkizu.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Besteek ez dute ulertuko zure helburuen zergatia, baina, ez kezkatu laguntza faltarik ez duzu izango eta, erabaki zuzenak hartzen dituzula konturatuko bait dira.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Orokorrean hau ez da aste ona izango zuretzat, dena den, berri on bat telefonoz iritsiko zaizu, nolabait beste momentu txarrak orekatzeko. Ring, ring...



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Autosufizientea zarelakoan ibiltzen zara beti edonon, eta aurrera egiteko ez duzu inoren beharrik izaten. Noizean behin baino izango ez bada ere, saiatu zaitez besteen eriziaz hartzen.

LAGUNDU EUSKALDUNTZEN!




Kanpaina honetan parte hartuz, euskara ikasten lagunduko diozu pertsona bati eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak 50.000 pezeta emango dizu ordainez.

Informazio gehiago nahi baduzu, dei Udaletxera (Euskara Zerbitzua)

**HARTU ZURE ETXEAN
EUSKARA IKASLE BAT!**

*Udaleko Euskara
Batzordea*

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



Otatora kalea.

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43